

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Zumaiako Ludoteka

2022/2023

Zumaiako Ludoteka
943143264
ludoteka@zumaia.eus



Euskara & Hezkuntza



ZER DA LUDOTEKA?

6-12 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua da. Ez da eskola, baina jostailu eta jolasaren bidez haurraren nortasuna garatzea helburu duen zerbitzua da eta umeei zuzeneko arreta jasotzen duten lekua.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

HAURRENTZAT :

- Ekintza gidatuak egunero
- Jostailuen mailegua
- Ekintza bereziak (festak, irteerak...)



- LudoKeta 10-12 urte bitarteko haurrentzako programa da.
- Hilabetean bi ostiraletan LudoKeta 19:30-20:30 bitartean irekita egongo da.
- Beraientzat egokitutako ekintzak izango ditugu.

GURASOENTZAT-TUTOREENTZAT

- Informazio zerbitzua

DENONTZAT

- Familientzako ekintzak
- Jostailu erakusketa

IZEN EMATEA

- Ordutegia :
 - Haur bakoitzak **bi egun aukeratuko** ditu .
 - Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:30era
- Ikasturteko kuotak:
 - Ludoteka: 49,50 €
 - Familia ugarien kasuan: 33,50 €
 - Ludoketa (10-12 urte): 12,50 €
 - DBE-GLL onuradunak: ordainketa salbuetsita

KUTXA ES30 2095 5174 91 1061601620

(Ludotekako kuota ordaintzen duten LH4-6 bitarteko hurrek ez dute LudoKetakoa ordaindu behar)

- Ekarri beharrekoak:
 - Izena emateko orria beteta
 - Ordainagiria
 - Familia ugarien eta/edo DBE-GLL agiria beharrezkoa bada
 - 2 argazki (berriak direnek)

Izen-ematea ez da behin betikoa izango beharrezko guztia ekarri arte.

NOIZ?

Izen ematea irailaren 26tik urriaren 4ra izango da, biak barne..

NON?

Hiru aukera dituzue:

1. Dena e-mailez bidali daiteke, dokumentuak zumaia.eus webgunean egongo dira zintzilikatuta. Dokumentuak pdf formatuan bidali behar dira, ez dira argazkiak onartuko.. ludoteka@zumaia.eus
2. Ludotekako buzoian, paper guztiak sobrea sartuta
3. Ludotekan bertan aurrez aurre honako egunetan:

26	27	28	29	30
11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00
3	4			
16:00-19:30	16:00-19:30			

Norbaitek hiru aukera hauetan ezin baldin badu, hezitzaileekin adostuko da beste modu bat. Horretarako, beraiekin jarri harremanetan.

ZOZKETA / SORTEO

- Egun aukeraketa nahiaren arabera egin behar da, zenbakiak jarritz (zein egun nahi duzue tokatzea? Egun horiei "1" , "2" eta "3" jarri lehentasunaren arabera)
- Haur bakoitzari zenbaki bat emango zaio eta egun aukeraketa nondik hasiko den zozkatuko da (adib: 15 zenbakia ateratzen bada, 15.enetik hasiko gara egunak osatzen, egun guztiak bete arte) Posible den heinean, zuek aukeratutako egunak errespetatuko dira.
- Zerrenda urriaren 7an argitaratuko da, ludotekan eta zumaia.eus webgunean.
- Egun bakoitzeko itxaron zerrenda osatuko da.
- Inolako aukerarik gabe geratuz gero, diru itzulketa egingo da.
- Ezinbestekoa izango da izen ematea ludotekan parte hartzeko.